

# BABESLEEN DOSSIERRA

## 2024 - 2025

# GURE HISTORIA

EASO BASKET kluba 1991. urtean sortu zen, eta Santiago Aramendi jauna izan zen lehen presidentea

Gure kluba Loyola klubak hasitako lanari (60. hamarkadan) jarraipena emateko sortu zen. Loyolaren senior taldea Espainiako 2. mailako Txapeldun izendatu zen 1990-1991 denboraldian, eta 1. mailara igo zen. Hala ere, klub horrek ez zuen lortutako helburuei eusteko beharrezko azpiegiturarik, eta bertan lehiatzeari uko egin behar izan zion.

## 01

EASO – Muebles Martin Espainiako Txapeldun izan zen bere lehen denboraldian, eta Lehen Mailara igotzea lortu zuen (Egun LEB Liga dena) 1992-1993 denboraldian zilarrezko dibisioan lehiatu zen, eta, gainera, Askatuakekin bat egin zuen, Gaska guztiz bete batean derbi gogoangarriak jokatzen ari zirenen aurka.

## 1992 - 1993

## 02

25 urteko historia gaindituta, kluba erreferentzia bilakatu zen estatu mailan, harrobiko saskibaloian. Arrakasta agerikoa zen kirol arloan, baina klubaren kudeaketa ez zen horren arrakastatsua.



## 2018

## 03

Klubeko Zuzendaritza Batzorderako hauteskundeak egin ziren, eta hautagaitza bakarra aurkeztu zen: EASO BAT. Profil profesional desberdinak dituzten eta kudeaketan modu altruistan parte hartzeko prest zeuden jokalarien gurasoek osatzen zuten hautagaitza.

EASO BAT Zuzendaritza Batzorde berria izendatu zuten urtea amaitu baino lehen.

# ZUZENDARITZA BATZORDEA

**ZUZENDARITZA BATZORDEA** → Kirol-batzorde teknikoa

- Errendimenduko nesken koordinatzailea
  - Errendimenduko mutilen koordinatzailea
  - Partaidetzako nesken koordinatzailea
  - Partaidetzako mutilen koordinatzailea
  - Eskolako koordinatzailea
- Bulego teknikoa
- Formakuntza, garapena eta errespetua
- Instalazioak eta hitzarmenak ikastolekin
- Administrazioa
- Ekitaldiak



# 5 PRINTZIPIO OROKORRAK

## TALDEA:

Zuzendaritza Batzorde ez presidentzialista eta independentea, eta enpresen kudeaketan prestakuntza eta esperientzia duten klubeko gurasoek osatua.

## ALTRUISTA:

Zuzendaritza Batzordeko kideok inolako etekin ekonomikorik ez lortzeko konpromisoa hartzen dugu, ez zuzenean, ezta zeharka ere. Gure inplikaziotik eratorritako etekinik ez dugula bilatzen ziurtatzen dugu.

## GARDENA:

Klubaren alderdi guztien egoeraren komunikazio zuzena, aldizkakoa eta gardena. Bai gurasoekin, baita barneko kideekin ere.

## KIROLA DA LEHENTASUNA:

Klubaren baliabideak kirol eskaintzarik onena eratzeko erabiliko dira, gastu orokor eta egitura-gastu guztiak minimizatuz.

## SOZIALA:

Kluba EASO BASKET familia osoaren kolaborazioarekin batera sozializatzeearen alde gaude.



# LAN-ILDOAK: 10



- TALKA PLANA
- EKONOMIA ETA FINANTZA PLANGINTZA
- KIROL ESKAINTZA
- ENTRENATZAILEAK
- ANTOLAKUNTZA
- IRUDIA ETA KOMUNIKAZIOA
- EKITALDIAK
- INSTAZIOAK ETA BALIABIDEAK
- ERAKUNDEEKIN HARREMANAK

# EASO BASKET FORMAKUNTZAN



Easo Saskibaloi Taldea 2014/2015

Fotografía de la gran familia del Easo Basket, con los 36 equipos que la forman, realizada en la cancha del Donostia Arena, en el complejo de Illunbe.

## Easo Basket continúa siendo el paradigma de la cantera

El club arranca la temporada con más de 500 jugadores, 36 equipos y siendo una referencia en el baloncesto formativo

MIKEL MADINABEITIA

### El equipo de EBA tocó el cielo al ganar la Euskal Kopa



SAN SEBASTIÁN | DEPORTE DONOSTIARRA

## El Easo SBT, ejemplo de cantera

El presidente del club, Eneko Blanco, se siente orgulloso de tener más de quinientos chicos y chicas que practican el basket en casi 40 equipos, escuela incluida

«En el 2016 cumplimos 25 años y merecemos celebrarlo por todo lo alto»



# EASO BASKET FORMAKUNTZAN

Gipuzkoako klub handiena gara (31 talde: 17 errendimenduan eta 14 partaidetzan + ESKOLA). Hainbat taldez osatutako eskailera osoa daukagu, mutiletan zein nesketan (zortzi urteko haurretatik hasita).

Horrela, urtero 450 jokalarik baino gehiago

eta 50 entrenatzaile baino gehiago dira klubaren parte.

Donostiako ikastetxe handienetako batzuetan eskola kirola kudeatzen dugu (Santo Tomas Lizeoa, Jesuitak...)

Gipuzkoako saskibaloi topaketa handienak antolatzen ditugu urtero.



# EASO BASKET FORMAKUNTZAN

## TXAPELKETAK

MINI EASO KOPA.

Benjamin eta Alebin kategoriak

Euskadiko, Nafarroako, Aragoiko, Gaztela eta Leongo eta Kataluniako 90 talde baino gehiago Aste Santuko azken asteburuan

EASO KOPA.

Infantil, Kadete eta Junior kategoriak

Euskadiko, Nafarroako, Aragoiko, Gaztela eta Leongo, Errioxako  eta Galiziako 90 talde baino gehiago iraileko lehen asteburuan.



# EASO BASKET FORMAKUNTZAN

## KANPUSA

### MINI KANPUS.

Benjamin eta Alebin kategoriak

100 jokalari baino gehiagok ematen dute izena ASTE SANTUAN antolatzen den KANPUS batean

### EASO KANPUSA (Lizarra).

Infantil, Kadete eta Junior kategoriak

200 jokalarik baino gehiagok ematen dute izena abuztuko azken asteetan antolatzen den KANPUS batean.



# EASO BASKET FORMAKUNTZAN

Urtero hartzen dugu parte bertako eta nazio mailako txapelketa garrantzitsuenetan:

Espainiako Txapelketak: Txapelketa nazionalak, 3x3: Easo Ibaeta Basket U17 taldeak Espainiako Txapelketa irabazi zuen bere lehen aldian, 2023ko ekainean. Gainera, urtero sailkatzen da gutxienez infantil, kadete edo junior talde bat Espainiako Kluben Txapelketa jokatzeko.

Txapelketak: Nazio mailan antolatzen diren txapelketa garrantzitsuenetako batzuetara gonbidatzen gaituzte, eta bertan hartzen dugu parte (Zaragoza, Tres Cantos, Globasket, Sabadell, Leon, Valladolid, Valentzia, Alcala, Girona...

Gipuzkoako eta Euskadiko selekzioen harrobia



Gipuzkoa: Azken urteetan klubeko 70 jokalari aritu dira alebin, infantil, kadete eta junior mailako selekzioetan.

Euskadi: Azken urteetan klubeko 20 jokalari baino gehiago aritu dira infantil, kadete eta junior mailako selekzioetan.

España: Azken bi urteetan klubeko jokalari bat aritu da Kadete mailako selekzioan.

# EASO BASKET FORMAKUNTZAN

**7**
**TALDE**
Euskal Ligan

**+40**
**TALDE**
25 mutilenak eta 15 neskenak



**+40**
**ENTRENATZAILE**

**+15**
**TALDE ERRENDIMENDUAN**
+15 talde Errendimenduan+15 partaidetzan eta 10 ESKOLAn

# EASO BASKET FORMAKUNTZAN

## 2023KO EKAINA

Egun historikoa. EASOk garaipena lortu zuen Espainiako Txapelketa batean.

Jokatutako 7 partidetatik 6 irabazi ostean, gure neskak Espainiako txapeldun izendatu ziren, atzo. Txapelketan saskiratze gehien lortu dituen taldea izan dira, eta Bartzelonari irabazi zioten finalean.

EASO Ibaeta Basket taldea (Ibaeta Basketekin sinatutako hitzarmenaren parte da) ondorengo jokalariek osatu dute: Nora Perez eta Sara Elzaurdi (06 belaunaldia), Nerea Margareto (07) eta June Saenz (08). Aritz Urbieta izan da entrenatzailea. Txapelketako talde onena izan ziren.

Gainera, Nora Perezek merezitako MVPa lortu zuen txapelketan, bertako jokalaririk onena izan ondoren.



46 | DEPORTES | BALONCESTO |

Alrededor de 500 seguidores del Gipuzkoa Basket estarán en la final four de Burgos

«No hemos asimilado aún ser campeonas de España»

Oro. Nora Pérez, June Sáenz, Nerea Margareto y Sara Elzaurdi, del Easo Ibaeta Basket, se proclaman campeonas de España de 3x3

# EASO BASKET FORMAKUNTZAN



## Easo, referente de cantera

«Este año mantenemos la estructura del club. Llegamos a 40 equipos y hay cerca de 400 niños»

«El objetivo es mantener la categoría y seguir formando a jóvenes jugadores»



SAN SEBASTIÁN | DEPORTE DONOSTIARRA

## El Easo prepara su 25 aniversario



SAN SEBASTIÁN | DEPORTE DONOSTIARRA

## Una mini Copa para los más grandes

Easo SBT acogió este pasado fin de semana la 7ª edición de este torneo

# BABESLE IZATEKO AUKERAK

## AUKERA UGARI

Klubaren dimentsioa eta bere eragina kontuan hartuta, babesle izateko bost aukera nagusi daude:

### KLUBA BABESTU

Klubari izena ematea, horrela oihartzun handiena lortuz.

### TALDEA BABESTU

Gure taldeetako bati izena emanez.

### EKITALDI BAT BABESTU

Urtero antolatzen ditugu Minikanpusa, Minikopa, Lizarrako Kanpusa, EASO Kopa, Uda Martxan, Summer Hoops, Saski Gabonak... eragin geografikoa ekitaldiaren araberakoa da.

### LAN TALDEA BABESTU

Kirol egitura guztiaren babeslea (kirol zuzendaria, entrenatzaileak, klubeko laguntzaileak), oihartzun handia lortuz eta hezitzailearen irudian ardaztuz

### BESTE AUKERA BATZUK

Babeslearen beharren eta baliabideen neurrira diseina dezakegu. (Publizitate estatikoa pistan, babeslearen irudia klubeko jokalarien galtzerdietan...).

# BABESLE IZATEKO AUKERAK

## KLUBA BABESTEA

Kluba babestea bere osotasunean, taldeetako bati izena emanez. Adibidez: EASO BASKET REALE ARENA.

Hori da babesle izateko modu zabalena, klubaren baliabide guztietan presentzia handia ziurtatuz.

Abantailak:

- Logotipoa ekitaldi eta kategoria guztietako arropetan.
- Logotipoa klubaren dokumentu ofizial guztietan, web orrian eta klubaren sare sozialetan.
- Aipamenak klubak sare sozialetan izango dituen albiste guztietan.
- Presentzia klubak antolatzen dituen ekitaldi guztietan.
- Presentzia klubaren sustapen jarduereetan.
- Marka zabaltzeko kanpaina proaktiboak.



# BABESLE IZATEKO AUKERAK

## TALDEA BABESTEA

Markaren helburuaren arabera, kategoria, liga eta adin desberdinetako taldeen babeslea izatea proposatuko da.

### ERRENDIMENDUZKOA LIGA

Probintzian jokatzen diren ligak: Gipuzkoa

### EUSKAL LIGA / 2. NAZIONAL

Autonomia Erkidegoan jokatzen diren ligak: Euskadi.

### PARTAIDETZA LIGA

Batez ere toki-eremuan jokatzen diren ligak: Donostialdea.

### LIGA EBA / 1. NAZIONAL

Autonomiaz gaindiko eremuan jokatzen diren ligak: Espainiako iparraldea



# BABESLE IZATEKO AUKERAK

## TALDEA BABESTEA

Abantailak:

Aurkezpena akordioa sinatzerakoan, klubeko babesle berri moduan, eta aipamena sare sozialetan eta web orrian.

Babestutako taldearen izena: Adibidez, "EASO BASKET EN CLAVE DE SOL", taldeak jokatzen duen ligan zein denboraldian zehar jokatzen dituen gainerako partidetan.

Babeslearen irudiarekin serigrafiatutako arropa.

Taldearen argazkia sasoi hasieran.

Klubearen web orrian egotea babesleen tokian.

Presentzia karteldegian eta dossierretan.

Presentzia mail-etako azpikaldean.

Presentzia DV-n denboraldian zehar argitaratutako iragarkietan.

Etengabeko presentzia klubaren sare sozialetan: 2.859 jarraitzaile baino gehiago Twitterren eta 3.094 baino gehiago Instagramen.



# BABESLE IZATEKO AUKERAK

## EKITALDIA BABESTEA

Klubak antolatzen dituen ekintza edo ekitaldi guztiak babestu daitezke.

LIZARRAKO KANPUSA + EASO KOPA.

MINIKANPUSA + MINIKOPA / BABYKOPA.



# BABESLE IZATEKO AUKERAK



## EKITALDI BABESLEA

Abantailak:

Aurkezpena akordioa sinatzerakoan, ekitaldiaren babesle berri moduan, eta aipamena sare sozialetan eta web orrian.

Ekitaldiaren izena: Babeslearen izena ezarriko zaio babestutako ekitaldiari akordioa lortzerako unean bertan. Adibidez: “Kids & US” Mini EASO kopa.

Karteldegia: Izena eta Irudia karteldegian.

Dossierra: Ekitaldi guztiek dossier bat izaten dute, eta dossier hori parte hartzera gonbidatzen ditugun klub guztiei bidaltzen zaie.

Publizitatea: Ekitaldiaren egoitza guztietan babeslearen irudia jarri daiteke (babesleak emanda).

Produktua Merchandasing-ean: Partaide guztiek produktu bat jasotzen dute (elastikoa, poltsa…) etaekitaldiaren eta  babeslearen irudia ezartzen zaio.

Aipamenak komunikabideetan; Irratietan zein egunkarietan tokia egiten diete gure ekitaldiei.

Etengabeko presentzia klubaren sare sozialetan: 2.859 jarraitzaile baino gehiago Twitterren eta 3.094 baino gehiago Instagramen.

# BABESLE IZATEKO AUKERAK

## LAN TALDEA BABESTU

EASO BASKETek 50 entrenatzaile eta laguntzaile baino gehiago ditu, eta astez aste hezitzaile lanak egiten dituzte.

Babesletza motaren edo babesleak bidali nahi duen mezuaren arabera, entrenatzaileek ageriko ikusgaitasuna duen mezu indartsu bat helarazi dezakete.

Klubeko talde tekniko osoa babestea proposatzen dugu (kirol-zuzendaria, entrenatzaileak, laguntzaileak...), guztiek estetika bisual bera izan dezaten. Espainiako iparralde osoan eragina izango luke, eta intentsitate handiagoarekin gure inguru hurbilean.

Abantailak:

Aurkezpena akordioa sinatzerakoan, eta aipamena sare sozialetan eta web orrian.

Elastikoa eta jertsea: Entrenatzaile eta laguntzaile guztiek elastikoa eta jertsea jasoko dituzte hezitzailearen irudia nabarmenduz. Babeslearen irudiak ere presentzia izango luke.

Denboraldian zehar aipamenak egingo litzaizkioke web orrian zein sare sozialetan entrenatzaileen babesleari.

Prestakuntza ekintzak: Denboraldian zehar klubak bere entrenatzaileekin egiten dituen prestakuntza ekintzetan aipamena izango luke.



# BESTE BABESLEAK

Prest gaude bi aldeen interes eta baliabideetara egokitzen diren beste aukera batzuk aztertzeko.




Ideiak:

Zuzenekoak Instagramen: Hilero zuzeneko bat egingo da Instagramen, sektoreko hainbat gonbidaturekin. Jokalarientzat, entrenatzaileentzat eta saskibaloi zaleentzat interesgarriak diren gaiak jorratuko dira.

Publizitatea: Klubak ez du kirol egoitza bakarra, ezinezkoa izango bailitzateke 40 taldek baino gehiagok leku berean jokatzea eta entrenatzea. Baina egoitza batzuetan klubeko talde asko pilatzen dira entrenamenduetan eta partidetan. Leku horietan publizitatea jartzeko aukera dago.

Baloiak: Klubeko talde guztiek erabiltzen dituzten baloiak pertsonalizatzeko aukera dago. Ekintza berritzailea da eta, ezinbestean, eragin handia izango luke.

Botilak: Baloiekin bezalaxe, pertsonalizatutako botilak entrenamendu eta partida guztietara eramaten diren objetktuak dira.

Jokalarien galtzerdiak: Xehetasun txikiagoa dirudien arren, galtzerdiek taldearen estetikan duten eragina garrantzitsua da. Klubeko jokalari guztien galtzerdiak babestea ekintza dibertigarria, bitxia eta oihartzun handikoa izan daiteke.

# ZERGETAN ERAGINA



Ezin ahaztu enpresa babesleentzat oso garrantzitsua den beste kontu bat: lortzen diren abantaila fiskalak.

Onura fiskalak babes motaren araberakoak izango dira. Horregatik, zergetan izan dezaken eragina taula batean islatu dugu:

| | OROKORRA (24%) | PYME (20%) | MICROPYME (18%) |
|---|---|---|---|
| **MEZENASGOAREN AURRETIK** | | | |
| Zerga aurreko onuradunak | 10.000 € | 10.000 € | 10.000 € |
| Ordaindu beharreko sozietateen gaineko zerga | 2.400 € | 2.000 € | 1.800 € |
| AZKEN EMAITZA | 7.600 € | 8.000 € | 8.200 € |

| | OROKORRA (24%) | PYME (20%) | MICROPYME (18%) |
|---|---|---|---|
| **MEZENASGOAREN ONDOREN** | | | |
| Mezenasgoaren ekarpena | 2.000 € | 2.000 € | 2.000 € |
| Zerga aurreko onuradunak | 8.000 € | 8.000 € | 8.000 € |
| Ordaindu beharreko sozietateen gaineko zerga | 1.560 € | 1.240 € | 1.080 € |
| AZKEN EMAITZA | 6.440 € | 6.760 € | 6.920 € |

| | OROKORRA (24%) | PYME (20%) | MICROPYME (18%) |
|---|---|---|---|
| **% BERRESKURATUTAKO MEZENASGOA** | **42%** | **38%** | **36%** |

EASO BASKET

Proposamen hau zuen gustukoa izango delakoan.

Zuen esanetara gauzkazue ondorengo helbide elektronikoetan eta telefonoetan argibideren bat behar izanez gero.

easobasket.com


**Ainara Bereciartua**
629 076 403

**Esteban Basterretxea**
639 380 863

**Email**
juntadirectiva@easobasket.com



IRULEA cromova e&dv Echeverría & Del Valle Ortodoncia Estética EL DIARIO VASCO KIDS&US TURDUS AZKUE BSK LEGAL & FISCAL EN CLAVE DE SOL comunicación + eventos BAQUÉ Café PENTEX ngloba strategy telesonic

OLARAIN Alex Iturralde Photo www.alexiturralde.com imui alimentación BORA DRON hood Gamma moonz es ortodoncia VILARIÑO MOTORSPORT il Gusto ALVITE ARQUITECTURA GIPUZKOA KIROLAK DONOSTIA SAN SEBASTIÁN Donostia Kirola



# ESKERRIK ASKO!

EASO BASKET